

DANETIK NASIAN

Lengo aste-ortan berri txar, mingarri bat jaso gendun: don Sebero Altube jaunarenil berria.

Larogei ta iru urtetan itzali da aren bizia. Euskaltzaindikoa gendun, euskal akadenikoa, aspaldidandik. Oso bakar eta kontatuak dakiten bezela zekiñ euskeraren berri. Gure gramatikaren legeak iñor gutxik bezela ezagutzen zitun. Euskerak etzun berezat ezkutu ta sekreturik.

Izkuntza guzien sendotasun eta balorea gramatika jokoan dagola esaten zun arrazoi aundiz Altube jaunak. Beste mintzaira batzutatik artutako itzak erabiltzeak eztula ezer esan nai, munduko mintzaira danetan berdon gertatzen dala ta. Errian ain itsatsita dauden itzak batez ere, gure artean gertatzen dan bezela; Itzak tolestatzen eta bakoitza bere tokian jartzen, ortantxe dagola kurpil guzia. Argiñ onak arriak dotore ta txukun tolestatzen ditun bezela, lan bera egiten du euskera mendean dunak.

Izan ere, asko ta askok, euskera garbian ari diralakoan, izkuntza lardastu ta zikindu besterik eztute egiten.

"Nai det akeita artu", entzun izan degun bein baño geiagotan. Ta... "kafea artu nai det" esaten dunak milla bider euskera jatorregoa darabilki. Euskeraren joskera bereziki nabarmentzen baita latifñetik jatorria duten izkuntza guzitatik.

"Izan naiz urrutizkiñean" esaten dunak baño ondotoz obeto itzegetin du euskeraren aldetik begiratuta, "telefonoan izan naiz" esaten dunak. Berbo ta gañontzekoak alderantziz erabiltzen baitira gure izkuntzan. Gañerako izkeretan aurrean dana gurean atzerik da, edo batekoz beste. Erderaz pentzatutakoa euskeraz jaurtitzea da gure egunetako gaitza. Erderaz pentsatuta eztago iñolako maduz itzik ondo tolestaterik euskeraz. Alakoak egundo ezta gauz onik egingo.

¿Euskerak bezelako erreztasunik nor du kanpotik artutako itzeri euskal kurpilla ta jazkera emateko? Naiz eta mariñel edo arrantzale modura jantzi, apaiza danak ondo asmatuko du meza ematen; naiz ta apaiz edo praille modura jantzi, ala eztanak iñoiz ezta balio dun mezarik emango.

Kanpoko itz mordo bat etxekotzat egiñagatik, gramatika legeak suzen dabiltzan arte, euskera izkuntza arrigarri ba' izango da; jakintsu danak aozabalka utziko ditun mintzaira bat.

Garozaletasun itxuak eramanda auzo jatorria duten itz danak baztartzen eta zokoratzen baditugu, ta sortu ditugun itz berri oleri erdel joskera ematen badiegu, euskeraren oñarri ta zimenduak deseginduak daude. Zimenduak utsegin ezkerro etxerik bikafiñak laister jotzen dute beia.

Sekula iñork arrazoi pixukorik, arrazoi marduñ eta bikafiñ eman badu euskeraren izakerari buruz, 1933' garren urtean Altube jaunak eman zitun.

Gogoangarria benetan Donosti'n irakurri zun itzaldi mamitsu uraxe. Altube'ren orduko itzak guri on aundia egin ziguten eta beste amaikatxori ere bai.

Altube bezelakoak, zoritxarrez, etzaizkigu dozenen amairu sortzen.

Musikalari ospetsua zan bestalde. Aren ardurapean egon zan urte batzutan Gernika'ko musika banda.

Gernika'ko alkate izatera eldu zan baitere.

Argi, jakintsua zan,
langille ~~berria~~,
Ezta errez oberik
berriz izatea.
Ixill da mutu da gaur
maixu on, maitea,
Jauna, eman zaiozu
beti pakea.

- - - -

Eriotzak bildua
zaitu beregana,
Azken pausoa zaude
lurrean emana.
Poztasun bat bakarra
dator gaur gugana,
Emen gelditzen dala
egin zendun lana.

"Basarri"

ZERUKO ARGIA

15 de septiembre de 1963